



Urtain Oñatin

Joxe Manuel Ibar *Urtain* (Zestua, 1943 / Madril, 1992) kirolari famaua izan zan 1960ko eta 1970ko hamarkadetan Euskal Herrixan nahiz hemendik kanpora. **Harri-jasotzaille** modura lehenengo, eta **boxeolari** lez geruago. Polemika ugari be sortu zan bere inguruan, batez be boxeoko-burrukak zirala-eta. Dana dala, ezin ukatu urte batzuetan ur gaineko bitsetan ibili zanik, azkenian amaiera latza izan eben arren.

Oñatira be etorri zan 1969ko apirillaren 20xan. **Argazki** hau Arantzazuko **Goiko Benta** ostatu-jatetxe aurrian atarata dago, han alkartu ziran lagun eta jarraitzalez inguratuta. Oñatiarrak gehixenak, baiña badira beste herri batzuetakuak be. Batari eta bestiarri itaundu eta gero, ondorengo honein izenak atara ahal izan dittugu, ezkerretik eskumara eta goittik behera:

Goiko illaran zutik: X. X.; Alberto Kortabarria, Olabarrietakua; Jexus Maiztegi, Goiko Bentakua; atzian X.X.; Pedro Maiztegi, txokolateriakua; atzian X. X.; Joxe Txintxurreta, Goixenetxe; Anjel Milikua, Arantzazuko Miliakuanekua; Joxe Manuel Ibar *Urtain*, antioju baltzakin; atzian X. X.; Felix Bolinaga, Maala Etxebarrikua; Bittoriano Guridi, Lekunbarrikua; atzian X. X. eta X. X.; Manolo X., Portugaletekua; atzian X. X.; Migel Maiztegi, Goiko Bentakua; Joxe Olalde, Araotzeko Zumalde baserrikua; X. X.; eta Pablo X., Portugaletekua.

Behoko illaran makurtuta: X. X.; Bixente Txintxurreta, Goixenetxe; Luis Arregi, Irazabal Txikiko laterandarra; Julian Beitia, aroztarra, Goiko Bentan bizi dana; Pedro Ugarte, Olaldekoa; Gregorio Biain, Etxezar; Honorio Agirregabaria, Bergarakua; Jose Luis X., galiziarra, orain kalia bizi dana.

J.E

Fotografia Jose Luis Plazaolak ataratakua da eta guri Pedro Ugartek eskuratu dosku. Argibidiak, berriz, Pedro berari ez ezik, Migel Maiztegi, Idoia Bolinaga, Arantzazu Olalde eta Joxe Mari Jauregieltzo *Paikori* be zor dostegu. Eskerrik asko danoiri!